

ERIZAINZAREN OINARRI TEORIKOAK

II. UNITATE TEMATIKOA: Erizaintzako zientzia eta diziplina

Autoebaluaziorako galderak:

- 1. Erizaintzak profesio independente gisa honako funtzioak definituta ditu:**
 - a) Asistentziala, ospitalekoa, osasun zentrokoa eta eskoletakoa.
 - b) Asistentziala, kudeatzailea, hezitzailea eta ikertzailea.
 - c) Asistentziala, ikertzailea, ospitalekoa eta osasun zentrokoa.
 - d) Asistentziala, hezitzailea, ordezkatzailea, laguntzailea.
 - e) Erantzun guztiak egiazkoak dira.
- 2. Erizaintzaren ze eredu kontzeptualean parekatzen dira beharren asetzeak “autozainketarekin”?**
 - a) Virginia Henderson-en ereduan.
 - b) Hildegarde Peplau-en ereduan.
 - c) Callista Roy-en ereduan.
 - d) Florence Nightingale-n ereduan.
 - e) Dorothea Orem-en ereduan.
- 3. Hurrengo esaldietatik adierazi zein ez dagokio eredu kontzeptual bati:**
 - a) Erizaintzaren fenomenoak identifikatzen ditu.
 - b) Garatzeko jakinduria zientifikoa eta filosofikoa barneratua dago.
 - c) Ospitaleko edozein talde profesionalak erabil daiteke.
 - d) Erabilera, praktika profesionalera moldagarria izan behar da.
 - e) Gure osasun sisteman nagusiki bat erabiltzen bada ere, askoz ere gehiago daudela ziurta daiteke.
- 4. Gizakia - Pertsona kontzeptua argi izan behar da eguneroko erizaintzaren eginbeharretan. Argitasun hau izateko hurrengo dimentsioak kontsideratu beharko genituzke:**
 - a) Fisikoa eta psikologikoa
 - b) Biologikoa eta elkarreragintzarena pertsona gizaki soziala delako bereziki eta ezin delako gizarterik gabe bizi.
 - c) Fisiologikoa, biologikoa, sozio-kulturala eta espiritual
 - d) Bio-fisiologikoa, psiko-sozial-kulturala eta espirituala
 - e) Fisikoa, psikologikoa, soziologikoa, komunikazioarena eta autoerrealizazioarena.

5. Erizaintzaren praktikarako eredu kontzeptual bat egin ahal izateko honako elementuak gutxienez kontsideratu behar dira:

- a) Pertsonaren edo zainketaren hartzaile taldeen definizioa; osasunaren definizioa; inguruaren definizioa; erizaintzaren rol berezia.
- b) Osasunaren definizioa; erizaintzaren rol independentearen definizioa; eginkizunaren zehaztapena; zainketak burutu behar diren lekua.
- c) Erizaintzaren lan independentea, beraz rola; erizaintzaren lan interdependentea, beraz talde multidiziplinarretik eratortzen dena; inguruaren zehaztapenak; balorazioa.
- d) Balorazioa, Diagnostikoa, Planifikazioa, lana ekitea eta ebaluazioa.
- e) Eredu kontzeptualak teorikoak direnez, praktikarako ez dute balio eta sartu beharreko elementuak teorizatzaile bakoitzak erabakiko ditu.

6. Virginia Hendersonek erizaintzaren rol profesionala kontzeptu hauekin definitzen du:

- a) Hezitzaile/laguntzaile.
- b) Laguntzaile/ordezkatzaile.
- c) Ordezkatzaile/moldatzaile.
- d) Moldatzaile/laguntzaile.
- e) Ezezaguna, errekurtsua, irakaslea, aitzindaria, ordezkoa, aholkulari.

7. Callista Roy-ek moldaketaren ereduan pertsona lau erara moldatu behar dela dio

- a) Fisiologikora, psikologikora, soziologikora eta espiritualera.
- b) Fisiologikora, psikologikora, soziologikora eta kontzeptualera.
- c) Fisiologikora, norberaren kontzeptuarena, soziologikora eta psikologikora.
- d) Fisiologikora, norberaren kontzeptuarena, rola menderatzearena eta interdependentziarena.
- e) Fisiologikora, psikologikora, soziologikora eta konpentsatzailera.

8. Erizaintzaren Eredu kontzeptualaren definizioetako bat izan daiteke:

- a) Erizaintza zientzia humanistikoa denez, zientzia horren barnean erabiltzen duen metodologia sistematikoa dagokion lana era antolatuan eta bakoiztasuna errespetatuz burutu ahal izateko baliogarria den metodoa.
- b) Erizaintzako errealitatearen errepresentazio estrukturala: irudi mentala; gizarteak erizaintzari buruz ezagutzen duenaren zerbitzu berezia.
- c) Kontzeptu eta baieztapen multzoa, errealitatearekin konparatzerakoan zentzu estrukturala hartzen duena.
- d) Irudiaren eta metodologia bereziaren multzo esanguratsua, erizainaren lan independente edo interdependenteari zentzua ematen diona.
- e) Edozein erantzun baliogarria kontsideratu daiteke denak direlako erizaintzaren ereduaren definizio, hau paradigma bat besterik ez delako eta dakigunez, paradigma hitzak hogeit hamar definizio baina gehiago har daitezke.

9. Virginia Hendersonen ustez pertsona batek dependentzia du:

- a) Ez duelako indarririk, ez duelako borondaterik edo ez duelako jakinduriarik.
- b) Ezin duelako mugitu eta horregatik ez dituelako beharrak gustatuko litzaiokeen moduan ase.
- c) Erizainak balorazioa egin ondoren horrela erabakitzen badu.
- d) Ospitalean dagoen bitartean.
- e) Ez dago erantzun zuzenik.

10. Hildegarde Peplauk lau fase deskribatzen ditu erizain-bezero erlazioan

- a) Orientazioa, identifikazioa, esplotazioa eta erabakia.
- b) Balorazioa, identifikazioa, esplotazioa eta ebaluazioa.
- c) Balorazioa, orientazioa, identifikazioa eta ebaluazioa.
- d) Balorazioa, esplotazioa, identifikazioa eta ebaluazioa.
- e) Orientazioa, esplotazioa, erabakia eta ebaluazioa.

11. Virginia Hendersonen ereduaren arabera osasuna parekatu daiteke

- a) Autozainketarekin.
- b) Moldaketarekin.
- c) Independentziarekin.
- d) Autonomiarekin.
- e) Autoestimarekin.

12. Metaparadigma hitza erabiltzen denean. Zer nahi dugu esan?

- a) Testuinguruan pertsonarekin erlazionatzen diren hainbat alderdi edo eta erizaintzaren ekintzak burutzen diren lekuak
- b) Fenomeno abstraktoez eta orokorrez osatua, diziplinaren perspektiba orokorra eta unibertsala erakusten duena.
- c) Kontzepzio holistikoaren fenomeno nagusiak.
- d) Kontzepzio humanistaren fenomeno nagusiak.
- e) c) eta d) erantzunak egiazkoak dira.

13. Nork kontsideratzen zuen honako definizioa erizaintzaren funtzioa definitzeko: Erizaintzaren funtzioa gaixoa era egokienean jesartzea da naturak bere gain eragin positiboa izan dezan

- a) Virginia Henderson
- b) Hildegarde Peplau
- c) Callista Roy
- d) Florence Nightingale
- e) Dorothea Orem

14. Kategorizazioko paradigmen arabera:

- a) Paradigma honek erizaintza pertsonarengan bideratu du erizainak "berarekin egotea" helburutzat duelarik.
- b) Erizaintzarentzat bi norabide irudikatzen dira bata osasun publikora eta bestea gaixotasunera.
- c) Pentsaera korrante honen arabera zainketak humanitarioak besterik ez dira.
- d) Pentsaera korrante honen arabera zainketak familian eman behar dira.
- e) Moldaketa eta ingurua lantzen dituen kontzeptuak nagusienak dira.

15. Erizainak erantzukizuna, autonomia eta kontrola duen ekintzetan esan daiteke:

- a) Erizaintzako lan interdependentea burutzen ari dela.
- b) Erizaintzako lan extradependentea burutzen ari dela.
- c) Erizaintzako lan dependentea burutzen ari dela.
- d) Erizaintzako kolaborazioko lanak burutzen ari dela.
- e) Erizaintzako lan independentea burutzen ari dela.

16. Gaixoaren kontsiderazio eta izendatzea, aldatu egin zen eta gaixo izatetik bezero izatera ze paradigmatan eman dela esan daiteke

- a) Kategorizazioko paradigmatan.
- b) Transformazioko paradigmatan.
- c) Beharretako paradigmatan.
- d) Moldaketaren paradigmatan.
- e) Integrazioko paradigmatan.

17. Ze paradigmatan kontsideratuko da pertsona osotasun integralean, era banaezinean?

- a) Kategorizazioko paradigmatan.
- b) Transformazioko paradigmatan.
- c) Beharretako paradigmatan.
- d) Moldaketaren paradigmatan.
- e) Integrazioko paradigmatan.

18. Ze eskolako erizainak saiatzen dira "zer egiten du erizainak?" galderari erantzuten?

- a) Elkar-eragintzaren eskolakoak.
- b) Moldaketaren eskolakoak.
- c) Beharretaren eskolakoak.
- d) Helburuaren eskolakoak.
- e) Espero diren emaitzen eskolakoak.

19. Virginia Hendersonen ereduaren arabera erizaintzako oinarrizko zainketak:

- a) Oinarrizko beharretatik eratorriko lirateke.
- b) Osasun zentroetan eman beharrekoak dira, ospitaleko zainketak ez direlako oinarrizkoak.
- c) Eskuzko teknikak ongi burutzean laburtuko lirateke.
- d) Oinarrizko beharrak eta oinarrizko zainketak sinonimoak dira.
- e) Kategorizazioko paradigman lana eginez gero ematen diren zainketa multzoa kontsideratzen dira.

20. Erizaintzaren metaparadigma:

- a) Lau fenomeno nuklearrez dago osatuta: Gaixoa, osasuna, ingurua eta rola.
- b) Lau fenomeno nuklearrez edo eskolaz dago osatuta: Beharrarena, elkarrengaitzarena, moldaketarena eta integrazioarena.
- c) Lau fenomeno nuklearrez dago osatuta: Pertsona, osasuna, ingurua eta rola.
- d) Lau fenomeno nuklearrez dago osatuta: Komunikazioa, erlazio sozialak, rola eta ebaluazioa.
- e) Lau fenomeno nuklearrez dago osatuta: Pertsona, osasuna, ingurua eta beharrak.

21. Pertsonaren kontzeptu holistikoa:

- a) Pertsona osotasunez kontsideratzea da, hau da, zati guztiak batuta.
- b) Pertsona osotasunez kontsideratzea da, hau da, zati guztiak batuta eta elkarrengaitzaren.
- c) Ezin da holismoaren kontzeptua onartu pertsonarekiko, bakoitzak beharrak era berezian asetzen dituelako eta orduan pertsona bakoitza bakarra.
- d) Transformazioko paradigmarekin pentsatu zen kontzeptu filosofikoa da
- e) a) eta d) erantzunak ongi daude

22. Hurrengo erantzunetatik adierazi zein ezin den Erizaintza profesioaren ezaugarria kontsideratu:

- a) Erizain izan behar diren heziketa neurri handi batean euren esku geratzen da.
- b) Berezko ezaguerak jorrazeko, beste diziplina batzuetatik hartutako teoriak ere erabili izan ditu.
- c) Teorien, marko erreferentzialen, eredu kontzeptualen jabe da profesioa.
- d) Portaeren kodea du baina hau profesioa burutzerakoan beti ezin da aplikatu ekintza asko eta asko eredu kontzeptuala jarraitzen ez duten tareak direlako.
- e) Erizaintza Zerbitzua Osasun Sistemaren barnean berezko entitate duen Subsistema gisa kontsideratu behar da.

ERANTZUNAK

1. b)
2. e)
3. c)
4. d)
5. a)
6. b)
7. d)
8. b)
9. a)
10. a)
11. c)
12. b)
13. d)
14. b)
15. e)
16. e)
17. b)
18. c)
19. a)
20. c)
21. b)
22. d)